

**II. ATALA**  
**BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOKO TOKI ADMINISTRAZIOA****Bakioko Udala****Kaleko Salmentea Araupetzen dauan Ordenantzearen aldarazpenaren behin betiko onarpena (iragarkia 2018-06-06 Bakioko).**

Bakioko Udaltzatzen Osoko Bilkurak, 2018ko apirilaren 12an, erabaki hau hartu zuen: kaleko salmentea araupetzen dauan ordenantzearen aldarazpena hasikera batean onestea.

Gauzak horrela, espedientea jendaurrean azaldu zan 30 egun baliodun epean, udal ediktu oholean, udaleko web gunea eta Bizkaiko Aldizkari Ofizialean ipinitako iragarkien bidez.

2018ko apirilaren 12ko erabagi hori eta berari buruzko aurrerakin guztiak arauk agintzen daben epean jendaurrean ezarri eta inork be erreklamazino edo iradokizunik aurkeztu ez dauan ezker, erabagi hori, behin betiko onetsi dala ulertu beharko da, beti be toki araubidearen oinarriak arautzen dauzan legearen 49. artikulua arabera.

Aldarazpen horren aurka administrazioagazko auzi errekurtsoa aurkeztu daiteke Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzien Salan, testua argitaratu eta bi hilabeteko epean, beti be iragarkia Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratzen dan biharamunetik zenbatzen hasita. Horrela bada, Administrazioarekiko Auzi Jurisdikzioa arautzen dauan uztailaren 13ko 29/1998 Legearen 46 artikulua ezarritakoagaz bat etorritz.

Era berean, aldarazpena oso-osorik argitaratzen da, ordenantzan era honetara jasota geratzeko:

**3. artikulua. — Kaleko salmenta motak**

3.1) Ordenantza honen aplikazino-eremuari lotutako kaleko salmenta motak honako honeek dira:

- a) Aspalditik antolatu izan diran aldizkako merkatuak edota merkatu barriak, leku jakinetan iminten diranak. Gehenez astean bitan antolatuko dira.
- b) Azokak, jaiak, herriko ospakizunak edo eskulagintza azokak dirala eta noizean behin ezarten diran merkatuak.
- c) Denda-kamioietan edota foodtruck-etan egiten dan salmentea.  
— Bakioko udal mugarte barruan, denda ibilgailuetan edo antzekoetan egiten den salmentea deialdi publiko bitartez bideratuko da; deialdi horretan ezarriko dira salmenta mota hori baimentzeko tokiak eta baldintzak. Hori ez da oztopo izango ibilgailu horreek udalak baimendutako ekitaldietan parte hartu daien.
- d) Bide publikoan iminitako postuetan egiten dan salmentea:
- e) Salmentea espazio pribatuetan:  
— Sarbide publikoko espazio pribatuetan.

3.2) Bide publikoan makina automatikoen bidez edo bide publikotik zuzeneko sarbidea duten establezimenduetan produktuak saltzeko, alde zurretik udalaren baimena beharko da. Baimena lortzeko, Merkataritza Jarduera Antolatzeko Legeak eta ezartze-koa dan ganerako legeriak eskatutako betekizunez ganera, instalazino desmuntagarriak imini beharko dira, ez finkoak. Baimena emoterakoan kokatu nahi dan alderdiko baldintzak hartuko dira kontuan. Besterik ezean, makina instalatuta dagoan edo argi-indarra hartzen dauen lekuaren jaubea joko da aparatuen arduraduntzat. Saltoki horreek adin txikikoek oso eskura eukiten dabenez, beren beregi galarazoten da horreen bidez tabakoa, edari alkoholodunak eta mendekotasuna sortu daikien bestelako produktuak saltzea, edo maneiatzean adin txikikoei kaltea eragin ahal deusienak. Makinak baimen bari-rik edo baimenaz bestelako baldintzetan instalatu ezker, zigor prozedurari ekingo jako,



eta debekuak irauten dauen bitartean makina prezintatzeko agindu ahalko dau organo eskudunak.

3.3) Establezimenduen eremu pribatuan produktuak kioskoetan, dendetan edota foodtruck-etan saltzeko (bide publikotik zuzeneko sarbidea eukita), udalaren baimena beharko da. Baimena lortzeko, Merkataritza Jarduera Antolatzeke Legeak eta ezartze-koa dan ganerako legeriak eskatutako betekizunez ganera, instalazino desmuntagarriak imini beharko dira, ez finkoak, eta establezimenduaren jarduera lizentziari lotuta egon beharko dabe.

Bakion, 2018ko ekainaren 25ean. — Alkate andrea, Amets Jauregizar Baraiazarra